

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HONDAKINEN ETA/EDO ISURIEN KONTROLA ETA ZAINZTA	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF1263		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Erabilera publikoko jarduerak eta natura-ingurunearen babesa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Naturaguneetako eta landa-eremuetako erabilera publikoaren kontrola	Iraupena	60
	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko kudeaketa-prozedurak.		70

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0083_3 NATURAGUNEAK ETA HAIEN ERABILERA PUBLIKOA KONTROLATZEA ETA ZAINZTEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Natura-ingurunean topa daitezkeen isuriak identifikatzea.

- E1.1 Isuriaren izaera bereiztea.
- E1.2 Isuriari lotutako arriskuak zein diren jakitea, norbera babesteko neurri egokiak hartzeko.
- E1.3 Isuriak natura-ingurunean sortutako eraginak baloratzea.
- E1.4 Isuriak natura-ingurunean eragindako ondorioei buruz informatzea.
- E1.5 Isuria kontrolatzeko prebentzio-neurriak aplikatzea.

A2: Natura-inguruneko isuriak kontrolatzea.

- E2.1 Natura-inguruneko isurien laginak hartzea.
- E2.2 Arau-haustea/delituak ziurtatzen duten beste proba batzuk jasotzea lursaillean.
- E2.3 Administrazio arau-hausteen aurrean —ingurumen-delituak, besteak beste— legedia aplikatzea.
- E2.4 Isuriak direla eta hil diren landare- eta/edo animalia-espeziak jasotzea.
- E2.5 Isuri-, flora- edo fauna-laginak horretarako ziurtatutako laborategietara eramatea.
- E2.6 Laneko arriskuak prebenitzeko ezarritako neurriak betetzea lanak egitean.
- E2.7 Isuriak aztertzeko kasu praktiko batean:
 - Isuri-mota bereiztea eta sailkatzea.
 - Isuriaren lagin bat jasotzea.
 - Eragin dezakeen ingurumen-kalte/inpaktua identifikatzea.
 - Prebentzio-neurriak aplikatzea, eta une bakoitzean egokiak diren norbera babesteko ekipoak erabiltzea.

A3: Hondakin-enpresak kontrolatzea, natura-ingurunean kalteak eragitea saihesteko.

- E3.1 Natura-ingurunean hondakinak sortzen dituzten enpresei buruz ohartaraztea eta enpresa horien errolda egiten laguntzea.
- E3.2 Natura-ingurunean hondakinak sortzen dituzten enpresen lana gainbegiratzeko egokiak diren kontrol-neurriak erabiltzea.
- E3.3 Hondakinak sortzen dituzten enpresak kontrolatzeko prozedurak aplikatzea, baso-/ingurumen-agenteei esandakoaren arabera.
- E3.4 Hondakinak sortzen dituzten enpresek eman beharreko dokumentazioa aztertzea eta ikuskatzea.
- E3.5 Hondakinak sortzen dituzten enpresen kontrol- eta segimendua-txostenak idaztea.
- E3.6 Kasu praktiko batean, hondakin-enpresa bati salaketa-atestatu bat egitea:
 - Egiten ari den arau-haustea edo delitua identifikatzea, horrelakorik egiten ari bada.
 - Hondakin- eta/edo isuri-laginak jasotzea lurzoruan, airean, uretan, animalian edo landarean.
 - Natura-inguruneari eragiten dion kalte-mota adieraztea.
 - Atestatuari erantsiko zaion txosten bat idaztea.
 - Txostenari laguntzeko behar den ikus-entzunezko materiala prestatzea eta/edo biltzea.
 - Jasotako laginei erantsiko zaizkien dokumentuak prestatzea eta betetzea.

Edukiak

1. Natura-inguruneko isurien identifikazioa.

- Isuri-motak.
 - Isuriei lotutako kutsatzaileak.
 - Isuriek eragindako osasun-/ingurumen-arazoak.
- Kutsadura-motak: Biotikoa. Kimikoa. Atmosferikoa.
- Usainak sorraraztea.
- Bektoreak ugaltzea (eulia, labezomorroa, kakalardoa, arkakusoa eta arratoia, besteak beste).
- Natura-inguruneko isuriek eraiten dituzten ingurumen-arriskuak eta -ondorioak.
- Kutsadura prebenitzea.

2. Natura-inguruneko isurien segimendua.

- Isurien laginak hartzea.
 - Lagin-motak: solidoa, likidoa eta gaseosoa.
 - Laginketa-guneak.
 - Laginak hartzeko protokoloa.
- Laginak jasotzeko andelak.
- Animalia hilak eta zaurituak jasotzea.
- Estatuko eta autonomietako erreferentziatzko analisi-zentroak.
- Segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak aplikatzea hondakinen eta/edo isurien kontrolean eta zaintzan.
- Arau-hauste administratiboak.
- Ingurumen-delituak.

3. Hondakinak sortzen dituzten enpresen segimendua eta kontrola.

- Natura-ingurunean hondakinak sortzen dituzten enpresak.
 - Enpresa motak.
 - Hondakin-motak.
 - Hondakinak sortzen dituzten enpresen kokapena kontrolatzea.
 - Hondakinak ezabatzeko baimenak eta protokoloak.
- Hondakinak sortzen dituzten enpresen kontrol-bitartekoak.
- Eragileen kontrol-elementuak eta -prozedurak.
- Enpresek beren hondakinak kontrolatzeko eman aurkeztu behar duten dokumentazioa.
- Enpresen kontrola eta segimendua egiteko eragileen txostenak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.